Usurbilgo Udala

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN HARMAILA TELESKOPIKOA MOTORIZATU ELEKTRIKOA HORNITU ETA INSTALATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA.

Agiri honen xedea: Honako kontratu honen xedea da Oiardo kiroldegirako harmaila teleskopiko motorizatu elektrikoa hornitzea, muntatzea, instalatzea eta abian jartzea.

2.- JARDUN-EREMUA.

Kontratu honen bidez adjudikatuko diren harmailak Oiardo kiroldegian instalatuko dira, honako klausula hauen arabera.

Oiardo Kiroldegiko pistan dauden bi nitxoetan sartu beharko dira, bertan instalatuta geldituz. Espazio hauek dimentsioak hauek dira: 1 nitxoa 17700 zabalerakoa eta 2400 altueran, 2 nitxoa 17900 zabalerakoa eta 2400 altueran.

3.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

- **HARMAILA MOTA**

Harmaila teleskopikoa izango da, alboko eta beheko barandak izan behar dituelarik. Europako UNE-EN 13200-5:2008 araua bete behar du.

- **GRADAREN NEURRIAK**

Luzera: 17500 mm harmailako

Modulu kopurua: 3 modulu harmail bakoitzeko gutxienez

Eserleku lerro kopurua: 5

Plazak: Jarleku jarraituak

Plataformen garaierak: 2300 mm

Harmaila itxia: 1453 mm

Harmaila irekia: 4200 mm

Sarrerak: 2 albo banatara (1100 mm)

- **EGITURAREN EZAUGARRIAK**

Arauari jarraiki, altzairuzko profilez egindako metalezko egitura. Gutxienez, 500 kg/m2-ko karga bertikalari eutsi behar dio. Korridoreetan eta eskaileretan, gutxienez, 7,5 kn/m-ko karga dinamiko bertikalari eutsi behar dio. Bestalde, lerro bakoitzaren zoladuraren mailan, gutxienez, 3,5 kn/m -ko karga horizontalari eutsi behar dio, eta 2 norabideetan, karga bertikalaren 1,2ren parekoa izango den ahalegin horizontalari, ikusleen mugimenduak kontuan izateko.

- **GURPILAK**

Gurpilak poliuretano edo antzeko material batekin egindakoak izan behar dira, urraduraren aurkako elementuz beharrezkoak izango balira.

- **GIDA SISTEMA**

Gradak goi eta behe gida sistema izan beharko du, atera eta sartzerakoan plataforma batek bestearekin jo edo roza dezan ekiditeko.

- **HARMAILARA SARRERA**

Harmail bakoitzak lehenengo lerroko albo banatara izango du sarrera, 1100 mm-ko irekiera librearekin. Sarbide-maila, egituran txertatuta egon beharko da edo egiturarekin automatikoki tolestu eta zabaldu beharko da.
Goiko kotako sarbidea ere bermatu egingo da.

- **BARANDAK**

Gutxienez 1100 mm altuera duten barandak izango ditu sistemak, alboetan eta lehenengo lerroaren aurrean. Ez dira eskalagarriak izango eta ez dute 10 zm baino gehiagoko tarterik izango. Harmailak jaso eta ateratzerakoan barandak guztiak montatuta mantendu behar dira.

Barandak harmaila irekitzean eta ixtean desmuntatzea eskatzen ez duen sistema bat izan beharko du.

Harmaila osoa kiroldegian hortarako dagoen espazioan sartzeko beharrezko sistema izan behar dute barandek.

- **PLATAFORMAREN LURZORUAK**

Plataformaren lur eta eskailerak egur kontratxapatuzkoak izango dira, eta akabatu ez labainkorra izango dute.

- **AULKI ETA AURREALDEA**

Harmailaren aulkiak banku jarraituaren motako eserlekuak izango dira, 450 mm-ko modulazioarekin, eta plastikozkoak.

- **ESKAILERAK**

Harmail bakoitzaren erdialdean 1100 mm-ko gutxieneko pasabidea egongo da (gomendagarria 1200 mm izanik) eserlekuetara igarotzeko. Eskailera guztiek altuera berdina izango dute, 200 mm gehienez, material ez labaingarrian eginda.

- **MOTORIZAZIOA**

Harmail bakoitzak motorizazio elektriko trifasiko sistema izango du, 200 mm inguruko diametrodun arrabolaz, gomazkoa lurzorua kaltetzea ekiditeko. Harmailak ateratzeko kontrola urrutiko kontrol bitartez egin beharko da.

- **PASABIDEAK**

Harmailaren solairu bakoitzean pasatzeko tartea gutxienez 400 mm-koa izan beharko da. Behe solairuan pasabidea handiagoa izan beharko da, 1100 mm-koa gutxienez.

- **MATERIALEN AKABERAK**

Elementu metalikoak minimo 80 mikroiko EPOXI motako margoarekin burutu behar dira, udalak erabaki beharreko kolorean. Plataforma, eskailera eta aulkien kolorea ere erabakiko dira.

- **ALBOKO ITXITURAK**

Harmailaren alboko hutsuneak akabera,PVC-zko olanekin estali beharko dira. Olana horiek zehaztu beharreko kolorea izango dute, behealdean kontrapisua izango dute eta goiko aldean belkro bidez lotuko dira.